



IDENTIFIKATZEKO ETA ERREGISTRATZEKO BETEBEHARRA

Nahitaezkoa da Nafarroan bizi diren edo aldi baterako (hiru hilabete baino gehiago) Nafarroan dauden txakurrak, katuak eta hudoak identifikatzea eta Erregistroan inskribatzea. Animalia horien eta jabearen datu guztiak jaso beharko dira.

Animalia horiek banaka identifikatu behar dira mikrotxipekin 3 hilabete bete aurretik, eta edozein transmisio egin aurretik beti.

Albaitari gaitu batek egingen du identifikazioa, honela:

- Mikrotxip bat jarriko du
- Datuak Erregistroan grabatuko ditu
- Animalia identifikatzeko pasaportearen eginen du

LAGUN EGITEKO ANIMALIAK IDENTIFIKATZEKO ERREGISTROKO DATUAK ALDATZEA

Jabearen/edukitzailearen aldaketak, beste autonomia erkidego edo herrialde batetik/batera lekualdatzeagatik altak/bajak, hiltzeagatik edo galtzeagatik bajak, arraza-aldaketak edo erregistratutako datuen beste aldaketa batzuk gaitutako albaitariaren aurrean egin beharko dira, hark emandako inprimakia bete eta dagokion dokumentazioa erantsiz:

- Jabearen aldaketa: eskualdaketa egiaztatzen duen dokumentua eta eskualdatzailearen eta eskuratzaileren NANA
- Edukitzailea aldatzea (jabea, pertsona juridikoa): Edukitzaile berriaren NANA eta pertsona juridikoaren ordezkariaren erantzukizunpeko adierazpena.
- Animalia galtzea: galdu eta 72 orduko epean agintaritzaren eskudunaren aurrean aurkeztutako salaketaren kopia.
- Bizilekua beste autonomia erkidego edo herrialde batetik/batera aldatzea: NANaren kopia, identifikazio-pasaportearen kopia edo animalia buruzko datuak jasotzen dituen osasun-txartela: mikrotxipa, geruza, arraza, sexua, adina, gaitasuna, pasaporte/txartela eman zuen albaitariaren elkargokide-zenbakia eta azken txertaketaren data. Animalia jatorrizko lekuan baja eman izanaren egiaztapena erantsi behar da.
- Hiltzeagatik baja erregistroan: animalia heriotzaren arrazoia egiaztatzen duen albaitariaren ziurtagiria (ustezko tratatu txarreatik salaketa jartzen denean soilik).
- Arriskutsua izan daitekeen animalia gisa katalogatzea: hori egiaztatzen duen agiria (erakunde eskudunaren ebazpena).